

LAN MERKATUA ETA JARDUERA EKONOMIKOA, HIRUHILEROKO TXOSTENA

2025EKO 1.
HIRUHILEKOA

EDUKIA

HIRUHILEKO ADIERAZLE NAGUSIAK	2
1. SARRERA	3
2. LAN MERKATUAREN BILAKAERA.....	3
2.1. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	3
2.2. KONTRATAZIOA	5
2.3. LANGABEZIA	8
2.4. DONOSTIARREN PARTEHARTZEA LAN MERKATUAN	11
3. DONOSTIAKO EKONOMIAREN BILAKAERA ETA DINAMISMOA	13
3.1. EZAGUTZAN INTENTSIBOAK DIREN ENPRESA ZERBITZUAK (SEIC)	15
3.2. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA.....	17
3.2.1. MERKATARITZA SEKTOREKO DINAMISMOA	17
3.2.2. OSTALARITZA SEKTOREKO DINAMISMOA (ostatu eta jatetxe/janari zerbitzuak)	19

HIRUHILEKO ADIERAZLE NAGUSIAK

LAN MERKATUAREN INGURUKO HIRUHILEKO DATUAK	Guztira			Hiruhileko bariazioa	Urteko bariazioa
Hiruhilekoaren amaierako afiliazioak (Gizarte Segurantza)	125.770	41,9%	58,1%	↓ % -0,05	↑ % 1,4
Sinatutako kontratuak (<i>Lanbide</i>)	21.454	9.129	12.325	↓ % -13,4	↓ % -0,2
– Behin-behinekotasuna (behin-behineko kontratuen %)	% 77,3	% 76,1	% 78,2	↓ % -2,4	↑ % 3,3
– Partzialtasuna (Lanaldi partzialeko kontratuen %)	% 45,1	% 35,1	% 52,5	↑ % 2,0	↑ % 3,0
Kontratutako pertsonak (<i>Lanbide</i>)	15.386	6.581	8.805	↓ % -10,3	↓ % -0,2
– 35 urtetik behera	8.101	3.623	4.478	↓ % -10,4	↑ % 1,4
– 35 eta 45 urte bitartean	2.791	1.146	1.645	↓ % -9,7	↓ % -8,5
– 45 urtetik gora	4.494	1.812	2.682	↓ % -10,6	↑ % 2,7
Hiruhilekoaren amaieran Lanbiden erregistratutako langabeak (<i>Lanbide</i>)	6.615	2.921	3.694	↑ % 2,1	↓ % -5,5
– 35 urtetik behera	1.652	837	815	↑ % 7,6	↓ % -0,9
– 35 eta 45 urte bitartean	1.170	462	708	↑ % 0,3	↓ % -5,9
– 45 urtetik gora	3.793	1.622	2.171	↑ % 0,4	↓ % -7,3
Jarduera Tasa (<i>EUSTAT</i>)	% 56,9	% 61,0	% 53,5	↓ % -0,4	↓ % -0,1
Okupazio Tasa (<i>EUSTAT</i>)	% 52,8	% 56,7	% 49,6	↓ % -0,9	↓ % -0,2
Langabezia tasa (<i>EUSTAT</i>)	% 7,1	% 7,0	% 7,2	↑ % 0,9	↑ % 0,1

HIRUHILEROKO DINAMISMO EKONOMIKOA	Zergadun bakarren JEZ ¹ eko altak	Zergadun bakarren JEZeko bajak	JEZeko zergadun bakarren Balantzea	Guztizkako Afiliatuak	Hiruhileko afiliazioen bariazioa
Hiriko guztizkoa (IAE)	450	316	134	125.770	↓ % -0,05
– SEIC	99	77	22	13.495	↑ % 1,4
– Merkataritza	56	46	10	12.300	↑ % -4,4
– Ostalaritza (jatetxe eta ostatu zerb.)	53	21	32	9.971	↓ % -0,7

¹ *Jarduera Ekonomikoen gainerako Zerga (JEZ)* Espainian jarduera ekonomikoak zergapetzen dituen tokiko zerga da. Ekoizpen-sarearen ikuspegi orokorra ematen du, eta martxan dauden jardueren kopurua eta mota, sektorearen bilakaera eta espezializazio-maila ezagutzeko aukera ematen du. Hala ere, ez du aukerarik ematen enpresen irekiera edo itxiera zehaztasunez identifikatzeko, aitortutako jardueretan oinarritzen baita, eta ez enpresa-erakundeetan, eta erregistroko mugimendu askok administrazio-doikuntzei edo jardueraren izaeraren aldaketek erantzuten diete.

1. SARRERA

Lan Merkatuaren eta Jarduera Ekonomikoaren Hiruhileko Txosten honek enpleguak eta enpresa-jarduerak 2025eko lehen hiruhilekoan izan duten bilakaeraren ikuspegi zehatza ematen du (urtarrilaren 1 eta martxoaren 31 bitartean). Gizarte Segurantzako afiliazioa, kontratazioa, langabezia eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) izandako altak eta bajak bezalako funtsezko adierazleen bidez, txosten honek urte berriaren hasieran hiriak izan duen bilakaera ebaluatu eta haren bilakaerari buruzko ondorioak atera nahi ditu.

Urteko lehen hiruhilekoa urtaroko faktoreek baldintzatu ohi dute, hala nola Gabonetako kanpainaren amaierak, jaiegunen osteko plantillen berregokitzeak eta enpresa-proiektu berrien hasierak. Aldi horrek aukera ematen du, halaber, urte berriko ekonomiaren eta lanaren bilakaeraren lehen zantzuak ikusteko, bai eta igurikimenak ekitaldiaren hasierako errealitatearekin alderatzeko ere.

Azterketa Gizarte Segurantzaren, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) edo Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datu ofizialetan oinarritzen da, eta ikuspegi zorrotza ematen du, informazio objektiboak babestua.

Jarraian, hiruhilekoaren lan-adierazle eta jarduera ekonomikoaren adierazle nagusiak aurkezten dira, 2025. urtearen hasieran hiriaren egoeraren ikuspegi argia eta egituratua emateko eta datozen hilabeteetarako joera posibleak aurreratzeko.

2. LAN MERKATUAREN BILAKAERA

2.1. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak herrialde bateko Gizarte Segurantzako sisteman erregistratuta dauden eta osasuna, erretiroa, langabezia eta antzeko prestazioak jasotzeko kotizatzen duten pertsonen kopuruari dagozkio.

2025eko lehen hiruhilekoaren amaieran, Donostiak 125.770 afiliatu ditu, hau da, udalerrian Gizarte Segurantzaren erregistratuta eta kotizatzen duten pertsonak, bai besteren konturako langile gisa Donostiako udalerrian kokatutako enpresetan, bai beren jarduera hirian garatzen duten autonomo gisa. Datu horrek Donostiako ekonomia eta lan-jarduera islatzen du, afiliatuak udalerrian edo inguruko beste herri batean bizi diren kontuan hartu gabe.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (2024ko abendua), afiliatuen kopuruak % 0,05eko beherakada txikia izan du (68 afiliatu gutxiago). Azpimarratu beharra dago ohikoa izaten dela urte hasieran afiliazioek behera egitea; izan ere, ohikoa da sektore batzuek, bereziki merkataritza, ostalaritza eta Gabonetako kanpainarekin lotura zuzena duten beste jarduera batzuekin lotutako sektoreek, beren enplegu-mailak egonkortzea urte amaierako enplegu gorakadaren ondoren.

Testuinguru horretan, 2024ko laugarren hiruhilekoan emakumeen afiliazioak % 1,4ko igoera nabarmena izan zuen arren (gizonen kasuan ikusitako % 0,1eko igoera baino askoz handiagoa), 2025eko lehen hiruhilekoan joera hori alderantzizkoa izan da: gizonen afiliazioa % 1,1 hazi da, eta emakumeena, berriz, % 0,81 jaitsi.

Aldaketa hori emakumeen presentzia handiagoa duten sektoreen urtarokotasunarekin lotuta egon daiteke, adibidez, gabonetako kanpainaren ondorioz bere jarduera ekonomikoa nabarmenki handitzen duen merkataritza sektorea. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da generoaren arabera bilakaera behatzen jarraitzea, lan-merkatuaren ereduak zehaztasun handiagoz ulertzeko.

Berriz, urte arteko afiliazio aldaketari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu Donostiako afiliatuen kopurua % 1,43 igo dela 2024eko martxoaren 31aren aldean (urte arteko hazkunde hau aurreko hiruhilekoaren antzekoa izan da). Hazkunde horrek erakusten du joera positiboa dagoela enplegua sortzeko eta udalerriko jarduera ekonomikoa sendotzeko.

Beste behin ere, urte arteko hazkunde hori gizonen afiliazioaren gorakadan oinarritzen da nagusiki, % 2,06 igo baita, eta emakumeen kasuan, berriz, % 0,99.

	2025ko urtarritla		2025ko otsaila		2025ko martxoa		Hiruhileko arteko bariazioa		Urte arteko bariazia	
	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.
Jarduera ezezaguna	89	276	93	276	94	279	% 4,4	% 1,8	% 14,6	-% 5,1
Lehen sektorea	101	26	120	19	118	19	% 22,9	-% 29,6	-% 9,9	-% 29,6
Industria	3.455	1.423	3.421	1.400	3.754	1.451	% 8,4	% 1,5	% 13,0	% 0,7
Eraikuntza	3.690	658	3.722	660	3.725	666	% 1,3	% 0,8	% 0,0	-% 1,0
Merkataritza										
• Ibilgailu motordunen salmenta	728	156	728	157	730	157	-% 0,7	% 0,6	-% 1,9	-% 2,5
• Handizkako merkataritza	2.122	1.135	2.127	1.136	2.125	1.153	% 0,1	% 0,2	% 1,5	% 2,9
• Txikizkako merkataritza	2.475	5.688	2.482	5.716	2.489	5.646	-% 4,6	-% 7,3	-% 3,2	-% 6,7
Ostalaritza										
• Servicios de alojamiento	820	1.216	837	1.235	880	1.278	% 0,6	-% 0,9	% 0,2	-% 2,5
• Restauración y similares	3.858	3.799	3.893	3.843	3.925	3.888	-% 1,3	-% 0,3	-% 1,2	-% 0,5
Pertsonen zuzendutako SEIC-ak ²										
• Hezkuntza	5.764	13.238	5.765	13.185	5.857	13.381	% 6,3	% 4,1	% 6,3	% 4,1
• Osasuna	2.463	10.012	2.456	10.052	2.475	10.070	% 0,5	% 1,7	% 0,5	% 1,7
Enpresei zuzendutako SEIC-ako										
• SEIC-T	4.678	3.121	4.715	3.151	4.737	3.181	% 0,5	% 1,3	% 0,5	% 1,3
• SEIC-P	1.223	1.940	1.234	1.952	1.244	1.952	% 0,5	% 1,8	% 0,5	% 1,8
• SEIC-C	1.046	1.246	1.056	1.273	1.068	1.313	% 5,3	% 9,9	% 5,3	% 9,9
Zerbitzu operatiboak ³	19.167	27.909	19.271	28.370	19.443	28.672	% 1,5	% 1,0	% 1,5	% 1,0
Generoaren arabera GUZTIZKOAK	51.679	71.843	51.920	72.425	52.664	73.106	% 1,01	-% 0,81	% 2,06	% 0,99
GUZTIZKOAK	123.522		124.345		125.770		-% 0,05		% 1,43	

Taula 1: Hileko azken eguneko afiliazioak, jarduera ekonomikoaren eta generoaren arabera (Gizarte Segurantzza)

Afiliazio-erregimenari dagokionez, Erregimen Orokorra bultzatu du batez ere enpleguaren hazkundera, besteren konturako langile gehienak (soldatukoak) biltzen ditu erregimen honek. Azken urtean, erregimen hori % 1,9 hazi da; afiliatutako gizonen kopurua % 2,7 igo da, eta emakumeena % 1,4.

Aitzitik, Langile Autonomoen Araubide Bereziak (LAAB), bere kontura lan egiten duten langileak barne hartzen dituen erregimenak, % 0,4ko beherakada txikia izan du. Hala ere, bilakaera hori ez da uniformea izan: emakume autonomoen kopurua % 0,1 igo da 2024ko martxoaren 31tik, eta gizonena, berriz, % 0,8 jaitsi da.

Beste erregimen berezi batzuk ere badaude. Berezitasun propioak dituzten kasu espezifikoagoak dira, baina ez da horietan sakonduko, ezezagunagoak eta ez hain ohikoak direlako.

	2025ko urtarritla		2025ko otsaila		2025ko martxoa		Hiruhileko arteko bariazioa		Urte arteko bariazia	
	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.
Erregimen orokorra	42.818	63.903	43.032	64.426	43.774	65.075	% 1,2	-% 0,9	% 2,7	% 1,4
Langile Autonomoen Araubide Berezia (LAAB)	8.679	5.528	8.687	5.558	8.686	5.569	-% 0,1	-% 0,3	-% 0,8	% 0,1
Besteren konturako nekazaritzako araubide berezia	29	0	30	0	31	0	-% 3,1	-	% 14,8	-
Itsasoaren erregimen berezia	29	6	46	6	53	6	% 35,9	% 0,0	-% 19,7	% 0,0
Etxeko langileen erregimen berezia	124	2.406	125	2.435	120	2.456	-% 7,7	-% 0,3	-% 14,3	-% 6,1
Generoaren arabera GUZTIZKOAK	51.679	71.843	51.920	72.425	52.664	73.106	% 1,0	-% 0,8	% 2,1	% 1,0
GUZTIZKOAK	123.522		124.345		125.770		-% 0,05		% 1,43	

Taula 2: Hileko azken eguneko afiliazioak, erregimen motaren eta generoaren arabera (Gizarte Segurantzza)

² SEPES izenez ezagutzen dira, eta, ezagutzaren ekonomia "nukleo gogorreko" zatitza hartzen ez diren arren, prestakuntza eta kualifikazio profesional handia eskatzen duten eta pertsonen ongizatean eragin zuzena duten jarduerak biltzen ditu. Jarduera horien artean Hezkuntza eta Osasuna daude.

³ Eginkizun funtzionalak, errutinazkoak edo laguntzaokoak gauzatzera bideratutako jardueren multzoa. Kualifikazio txikia edo ertaina eskatzen dute, eta hainbat sektoreri lotuta daude, hala nola merkataritza, ostalaritza, garraioari, garbiketari edo segurtasunari.

2.2. KONTRATAZIOA

Kontratazioei dagokienez, 2025eko lehen hiruhilekoan 21.454 kontratu sinatu ziren Donostian, hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 13,4 gutxiago, orduan 24.760 kontratu erregistratu baitziren. Jaitsiera hori, ehunekotan esanguratsua bada ere, Gabonetako kanpaina amaitzearekin eta urtaroen arabera langile beharren fluktuazio handia duten sektoreetan (merkataritzan eta ostalaritzan, esaterako) izandako egonkortzearekin lotuta dago. Era berean, bereziki dinamikoa izan den urte amaiera baten itxieraren ondorengo lanpostu berrien sorreraren moderazioa isla lezake.

Hiruhileko jaitsiera horri erreparatu beharren urte arteko alderaketa kontuan hartzen badugu, honek ikuspegi egonkorragoa eskaintze digu: 2024ko lehen hiruhilekoan baino 38 kontratu gutxiago sinatu dira 2025eko lehen hiruhilekoan (21.454 eta 21.488, hurrenez hurren). Urte arteko bariazio horrek iradokitzen du lan-merkatuak nahiko portaera konstantea duela kontratazioari dagokionez azken urtean.


Generoaren arabera banaketari dagokionez, emakumeen kontratazioak garrantzi handia izan du hiruhileko honetan, 12.325 kontratu sinatu baitituzte emakumeek, hau da, kontratu guztien % 57. Horrek esan nahi du emakumeek presentzia handiagoa dutela lan-merkatuan, baina beharrezkoa da kontratu horien baldintzak aztertzea sortutako enpleguaren kalitatea neurtzeko.

KONTRATAZIOAREN BEHIN-BEHINEKOTASUNA ETA JARDUNALDIAREN PARTZIALTASUNA

Behin-behinekotasunari dagokionez, 2025eko lehen hiruhilekoan sinatutako kontratuen % 23 bakarrik izan dira mugagabeak (gizonek sinatutako kontratuen % 24 eta emakumeek sinatutako kontratuen % 22).

Hala ere, ehuneko hiru puntuko igoera erregistratu da 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, orduan kontratuen % 20 bakarrik baitziren mugagabeak. Aurrerapen horrek zerikusia izan dezake kontratazioan egonkortasun handiagoa izatearekin aldi baterako kanpainak itxi ondoren, Gabonetako kanpainakoa, adibidez.

Behin-behinekotasunari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak minimoak diren arren, lanaldi partzialeko kontratazioak emakumeen kolektiboan du eraginik handiena oraindik ere. 2025eko lehen hiruhilekoan, emakumeek sinatutako kontratuen ia % 52 lanaldi partzialekoak izan ziren, eta gizonek sinatutako kontratuen % 33. Arrakala horrek agerian uzten du partzialtasunak eragin handiagoa duela emakumeen enpleguan, eta horrek erronka garrantzitsuak planteatzen ditu berdintasunari eta enpleguaren kalitateari dagokienez.



Irudia 1: Hiruhileko kontratazioa, kontratu motaren eta generoaren arabera (Lanbide)


KONTRATATUTAKO PERTSONAK:

2025eko lehen hiruhilekoan sinatutako 21.454 kontratuekin, 15.386 pertsona kontratatu dira guztira. Aurreko hiruhilekoaren aldean kontratatutako pertsonen kopuruak behera egin du, orduan 17.160 pertsona kontratatu ziren eta. Kontratutako pertsonen kopuruaren beherakada hori baldintzatuta dago, hein batean, lan-jardueren urtarokotasunagatik.

Aldi berean, 2024ko lehenengo hiruhilekoan baino pertsona gutxiago kontratatu dira ere, orduan 15.414 pertsona kontratatu baitziren.

Kontratutako pertsonen adina


Kontratutako pertsonen artean nabarmentzekoa da 35 urtetik beherako gazteen presentzia da, 2025eko lehenengo hiruhilekoan gehien kontratatzen den kolektiboa izaten jarraitzen baitute. Gainera, adin-tarte guztietan emakumeak gizonak baino gehiago kontratatu direla ikus daiteke, eta horrek lan-merkatuan emakumeek parte-hartze handiagoa izateko joera erakusten du.



Irudia 2: Hiruhilekoan kontratatutako pertsonen profila adin-tartearen arabera (Lanbide)

Kontratutako pertsonen jatorria

Kontratutako pertsonen nazionalitateari dagokionez, kontratatutako pertsonen % 19,8 atzerritarrak ziren. Nabarmentzekoa da atzerriko biztanleria Donostiako biztanleriaren % 10,6 inguru den arren, kontratatutako pertsona guztien artean duten presentzia nabarmen handiagoa dela.




Irudia 3: Hiruhilekoan kontratatutako pertsonen profila, nazionalitatearen arabera (Lanbide)

Kontrataturako pertsonen ikasketa maila

Kontrataturako pertsonen maila akademikoari dagokionez, kontratatuen % 36k goi-mailako ikasketak zituzten, Lanbide Heziketa (LH) edo unibertsitateko ikasketak.

Gainera, aipatzekoa da, proportzioan, kontratatutako emakumeek gizonek baino prestakuntza-maila handiagoak zituztela (kontrataturako emakumeen % 25,7k unibertsitate-ikasketak zituzten, gizonen kasuan % 17,9k zituen unibertsitate-ikasketak).

Nabarmentzekoa da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, unibertsitate-ikasketak dituzten kontratatutako pertsonen proportzioa ehuneko 3 puntu igo dela (% 22 2025eko H1ean eta % 19 2024ko H4ean). Hazkunde hori jarduera ekonomikoen urtarokotasunarekin lotuta egon daiteke: urte amaieran, hainbat sektoreetako kontratazioak, hala nola ostalaritza eta merkataritzako kontratazioak, gora egin dute jendeari arreta ematera bideratutako profilak behar izaten baitituzte urtearen sasoi horretan, prestakuntza maila xumeagoa izaten ohi dituzten profilak. Urtea hasieran, berriz, kontratazioa aktibatzen da kualifikazio handiagoa eskatzen duten sektoreetan, hala nola hezkuntzan, osasunean, zerbitzu profesionaletan edo esparru teknologikoan.



Irudia 4: Hiruhilekoan kontratatutako pertsonen profila, ikasketa-mailaren arabera (Lanbide)


2.3. LANGABEZIA

2025eko lehen hiruhilekoaren amaieran, Donostian 6.615 langabe zeuden erregistratuta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa; horietatik 2.921 gizonak ziren eta 3.694 emakumeak.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (2024ko abendua), erregistratutako langabeen kopurua % 2,1 igo da. Gizonezkoen langabezia % 1,6 hazi da, eta emakumezkoena, berriz, gehiago, % 2,5.

Hala ere, urte arteko datuei dagokienez, langabeziaren bilakaera positiboa izan da. 2024ko martxoarekin alderatuta, langabeziak % - 5,5 egin du behera guztira. Langabeziaren murrizketa hori nabarmenagoa izan da gizonen artean, % - 7ko jaitsiera izan baitu. Emakumeen artean, berriz, langabeziaren murrizketa % - 4,4koa izan da .

Aurreko hiruhilekoaren aldean langabeziak pixka bat gora egin duen arren, urte arteko datuek Donostiako lan-merkatuaren etengabeko hobekuntza berresten dute.




Irudia 5: Langabeziaren hiruhilekoko bilakaera generoaren arabera (Lanbide)

Lanbiden erregistratutako langabeen adina

Adinaren eta generoaren arabera langabeziaren banaketari erreparatzen badiogu, ikusten da langabeen % 57k 45 urte baino gehiago dituela, eta horrek agerian uzten du langile zaharrenek zailtasun handiagoa dutela enplegua aurkitzeko. Joera horrek lan-merkatuaren egiturazko problematikak islatzen ditu.

Gainera, nabarmentzekoa da emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa dela adin-tarte guztietan, 35 urtetik beherako adin-tarteetan izan ezik, horietan egoera alderantzizkoa baita. Horrek iradokitzen du, adinean aurrera egin ahala, emakumeek zailtasun handiagoak dituztela lan-merkatura itzultzeko gizonekin alderatuta, eta hori lotuta egon daitekeela lan-eta familia-bizitza uztartzearekin, soldata-arrailekin edo emakumeak langabeziarekiko kalteberagoak diren sektoreetan kontzentratzearekin.




Irudia 6: Hiruhilekoaren amaieran langabezian dauden pertsonen profila, adinaren eta generoaren arabera (Lanbide)

Lanbiden erregistratutako langabeen ikasketa maila

Langabeen hezkuntza-mailari dagokionez, langabeen % 43,5ek ez du derrigorrezko hezkuntzarik, eta horrek adierazten du oinarritzko prestakuntza duten pertsonen zailtasunak dituztela lan-aukerak lortzeko.

Datu horiek generoaren arabera banakatzen ditugunean, ikusten dugu oinarritzko ikasketak dituzten gizon langabe gehiago daudela emakumeak baino, eta unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoa askoz handiagoa dela maila akademiko bera duten gizonena baino. Fenomeno hori amatasunaren bizi-zikloarekin lotuta egon daiteke, eta ziklo horrek emakumeen lan-bizitzan eragin berezia izaten jarraitzen du.



Irudia 7: Hiruhilekoaren amaieran langabezian dauden pertsonen profila, maila akademikoaren eta generoaren arabera (Lanbide)

EAEn erregistratutako langabeziaren lurralde-konparazioa

Donostiako lan-merkatuan zenbait erronkek jarraitzen dutela erakusten duten zifrak gorabehera, garrantzitsua da nabarmentzea, Lanbideren datuen arabera, Donostia eta Gipuzkoa direla Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde historikoa eta hiriburua, langabezia-indize txikienarekin.

Gainera, Donostian izan da urte arteko jaitsierarik handiena Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruan. Jaitsiera horrek erakusten du enpleguaren egoera nabarmen hobetu dela, EAEko beste eskualde batzuekin alderatuta langabezia ia oso txikia baita.

			Urteko bariazioa		Langabezia indizea ⁴	EAErekiko diferentzia
Donostiako langabeak guztira	6.615	% 100,0	-% 5,5	Gipuzkoa	7,8	-1,9
Gizonak	2.921	% 44,2	-% 7,0	Donostia	7,2	-2,4
Emakumeak	3.694	% 55,8	-% 4,4	Bizkaia	10,5	0,8
				Bilbo	12,3	2,6
Gipuzkoa	28.490		-% 4,1	Araba	10,9	1,2
EAE	108.314		-% 2,8	Gasteiz	11,3	1,6

Taula 3: Langabeziaren eta langabeziaren bilakaeraren lurralde-alderaketa (Lanbide)

Datu horrek eskualdean enplegua sortzeko joera positiboa nabarmentzen du, eta joera hori hainbat faktorek bultzatzen dezakete, hala nola tokiko hazkunde ekonomikoak, produkzio-sektoreen dibertsifikazioak eta lurraldean enplegua sustatzeko ezarritako politikek.

⁴ Lanbideren langabezia-indizea enplegu-eskatzaile gisa inskribatutako pertsonen administrazio-erregistroan oinarritzen da. Hau da, enplegu-bulegoetan ofizialki langabezian izena eman duten pertsonak.

Aldiz, Eustaten langabezia-tasa estatistika-inkesten bidez lortzen da, zehazki, Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesten (BJA) bidez. Nazioarteko irizpideen arabera (LANE) langabezian dauden pertsonak sartzen dira, Lanbiden izena emanda egon edo ez.

2.4. DONOSTIARREN PARTEHARTZEA LAN MERKATUAN

EUSTATEk argitaratutako Biztanleriaren jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA) etengabeko informazio-iturria da Euskal AEko lan-indarraren ezaugarri eta dinamika buruz. BJAk EAEko familia-etxebizitzetan bizi den biztanleriaren produkzio-jarduerarekiko harremana jasotzen du, baita lan-egoera izandako aldaketak ere. Informazioa inkesta baten bidez jasotzen da. Inkesta hori etxebizitzaren panel jarraitu batez osatutako lagin bati egiten zaio. Panel hori eguneratu egiten da hiruhileko bakoitzean etxebizitzaren 1/8ko txandakatzearekin (etxebizitza bakoitza bi urtez egoten da panelean).

Lanbide enplegu-erakunde gisa izena emanda dauden pertsonen informazioa jasotzen du, hau da, lan-bila aktiboki erregistratuta dauden eta lan-merkatuan sartzeko prest dauden pertsonen informazioa; BJA, berriz, biztanleriaren lagin adierazgarri batean oinarritzen da, landunak eta langabeak barne, baina ez nahitaez enplegu-zerbitzuetan erregistratuta daudenak.

2025eko lehen hiruhilekoaren amaieran (2025eko martxoa), EUSTATEk uste du Donostiak 89.397 PERTSONA AKTIBO dituela (90.806, 2024ko T4an), hau da, lan egiteko adinean egonik, enplegatuta edo aktiboki lan bila ari diren pertsonak. Pertsona aktibo horien artean, BJAk kalkulatu du BIZTANLERIA LANGABEA 6.350 pertsonakoa dela (5.673 pertsona 2024aren itxieran).

	Jarduera tasa	Langabezia Tasa	Okupazio Tasa
GUZTIRA	% 56,9	% 7,1	% 52,8
Gizonak	% 61,0	% 7,0	% 56,7
Emakumeak	% 53,5	% 7,2	% 49,6

Taula 4: Donostiarren jarduerarekiko erlazioa (EUSTAT, "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta")

LANGABEZIA-TASA Donostian 2025eko lehen hiruhilekoan % 7,1koa izan den arren (aurreko urteko lehen hiruhilekoaren balio bera), alde nabarmenak ikusten dira Donostiako herritarren artean, adinaren eta generoaren arabera:

JARDUERA TASA				OKUPAZIO TASA				LANGABEZIA TASA			
Adin tarte	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Adin tarte	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Adin tarte	Gizonak	Emakumeak	Guztira
<25	% 26,9	% 38,6	% 32,9	<25	% 21,9	% 25,4	% 23,7	<25	% 18,7	% 34,3	% 28,0
25-35	% 90,1	% 83,9	% 86,9	25-35	% 87,2	% 77,9	% 82,4	25-35	% 3,2	% 7,3	% 5,2
35-45	% 95,8	% 91,5	% 93,8	35-45	% 87,7	% 87,8	% 87,7	35-45	% 8,5	% 4,0	% 6,4
45-55	% 93,1	% 88,0	% 90,5	45-55	% 91,5	% 84,8	% 88,0	45-55	% 1,7	% 3,7	% 2,7
55-65	% 74,1	% 74,4	% 74,3	55-65	% 66,8	% 70,5	% 69,0	55-65	% 9,8	% 5,3	% 7,1

Tabla 5: Donostiako biztanleriaren jarduerarekiko erlazioa, generoaren eta adin-tarteen arabera (EUSTAT, "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta")

- Gazteek jarduerata-tasak txikiak dira, ikasten ari direlako eta ez direlako modu aktiboan lan bila ari. Hala ere, adin goiztiarretan, emakumeek okupazioari eta enpleguari buruzko datu nabarmenak dituzte.
- 25 urtetik beherako eta 55 urtetik gorako adin-tarteetan izan ezik, gizonen jarduerata-tasak emakumeenak baino pixka bat handiagoak dira; hau da, lan egiteko adinean egonik, lanean edo lan aktiboaren bila ari diren gizonak gehiago dira emakumeak baino.
- Hala ere, langabezia-tasari dagokionez, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa da ia adin-tarte guztietan (salbuespenak: 35-45 urtekoen artean eta 55-65 urtekoen artean). Horrek esan nahi du, oro har, lan egiteko adinean dauden edo lana aktiboki bilatzen ari diren emakumeek zailtasun handiagoak izaten dituztela lanpostu bat lortzeko gizonekin alderatuta.
- 55 urtetik aurrera, jarduerata- eta okupazio-tasak behera egin du nabarmen.

Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkestaren azken emaitzen arabera, Gipuzkoa da EAEko langabezia-tasarik txikiena duen lurralde historikoa. Hala ere, hiriburuetan arreta jartzean, Gasteizek Donostiak baino ehuneko 0,6 puntu gutxiagoko langabezia-tasa du, eta 2025eko lehen hiruhilekoan langabezia txikiena duen hiriburua da.

Datu hori ez dator bat 2024aren amaieran erregistratutako egoerarekin, orduan Donostiak langabezia-tasa askoz ere txikiagoa baitzuen: Gasteizek baino ia ehuneko puntu bat gutxiago eta Bilbok baino 2,7 puntu gutxiago.

Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestaren datuak Lanbideren administrazio-erregistroekin erkatzean, alde nabarmenak ikusten dira. Bi informazio iturrien arteko alde horiek, funtsean, kalkulu-metodologiei eta iturri bakoitzak erabilitako lagin motari erantzuten diote.

Lanbideren datuen eta Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestaren (BJA) datuen arteko aldea batez ere iturri bakoitzak langabezia kalkulatzeko erabilitako metodologiari zor zaio. Lanbidek enplegu-eskatzaille gisa inskribatutako pertsonen kopurutik abiatuta biltzen du informazioa, eta horrek esan nahi du enplegu-zerbitzuan erregistratzen borondatez joan direnak bakarrik zenbatzen dituela.

Bestalde, EUSTATen BJA laginketa bidezko inkesta batean oinarritzen da, eta nazioarteko estatistika-erakundeek ezarritako metodologiari jarraitzen dio. Lanbide ez bezala, BJA ez dago eskatzaileen administrazio-erregistroaren mende; aitzitik, langabetuak irizpide zabalagoetan oinarrituta balioesten ditu, hala nola, lan egiteko prestasunean eta azken aldiko enplegu-bilaketa aktiboan.

Azkenik, garrantzitsua da kontuan hartzea laginketa bidezko inkestetan oinarritutako estatistikak direnez, BJAREN datuek zehaztasuna gal dezaketela lurralde-unitate txikiagoetan aztertzen direnean, hala nola udal-eremuan. Ezaugarri horrek lurrunkortasun-maila handiagoa dakar hiruhilekoen arteko emaitzetan; izan ere, zenbatespenen gorabeherak ez dira soilik lan-merkatuko benetako aldaketen ondorio, inkestaren metodologiak berak eragindako aldaketen ondorio baizik.

	Langabezia Tasa				Jarduera Tasa				Okupazio Tasa		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira		Gizonak	Emakumeak	Guztira		Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,4	6,1	5,7		60,7	53,3	56,9		57,4	50,1	53,6
Donostia	7	7,2	7,1		61	53,5	56,9		56,7	49,6	52,8
Bizkaia	8	8	8		59,4	51,5	55,2		54,6	47,3	50,8
Bilbo	8,7	9,3	9		60,4	51,8	55,9		55,1	47	50,9
Araba	5,8	6,5	6,1		62,2	51,4	56,6		58,6	48	53,2
Gasteiz	6,4	6,7	6,5		62,4	50,5	56,2		58,4	47,1	52,6
EAE	6,8	7,1	7		60,2	52	56		56,1	48,3	52,1

Taula 6: EAEko biztanleriaren jarduerarekiko erlazioaren lurralde-konparazioa (EUSTAT, "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta")

3. DONOSTIAKO EKONOMIAREN BILAKAERA ETA DINAMISMOA

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak (JEZ) jarduera ekonomikoen garapena zergapetzen du, hau da, produkzio-bitartekoak eta/edo giza baliabideak norberaren kontura antolatzea, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean eta banaketan esku hartzeko. Pertsona juridikoek zein autonomo jakin batzuek ordaindu beharreko zerga da, fakturazio-bolumenaren arabera, eta hiriko enpresa-ehunaren ikuspegia lortzea ahalbidetzen du.

Egia bada ere EJZk ez digula ematen establezimenduen eta enpresen altei eta bajei buruzko informazio zehatzik, zaila baita aldi baterako jarduera-uzteak bezalako errealitateen bidez neurtzea (ez dute zertan enpresa itxi), hiriaren dinamismoari eta bertan gertatzen diren jarduera ekonomikoei buruzko orientazioa eskaintzen digu.

2025eko lehen hiruhilekoan EJZn zergadun bakarrek izandako altak eta bajak aztertuz gero, ikus daiteke hiriak +134 zergaduneko saldo positiboa duela. Zergadun bakarrak enpresekin elkartu ohi diren arren (merkataritza-sozietateak edo autonomoak izan) eta datu horrek bilakaera positiboa erakusten duen arren, komeni da zehaztea aurreko hiruhilekoan -221 zergaduneko saldo negatiboa erregistratu zela. Baja horietako asko jarduera uztearekin lotuta egon ziren, urtaroko arrazoiengatik, errentagarritasun ezagatik edo zerga-plangintzako erabakiengatik, hala nola zerga-kargak murriztera edo jarduera berrantolatzea bideratutako aldi baterako itxierengatik.

Baja-mota horiek koiunturazkoak izaten dira, eta gehiago erantzuten diete ziklo ekonomikoei edo sektore jakin batzuen urtarokotasunari egiturazko krisi bati baino. Izan ere, ohikoa da egoera horiek hurrengo urtearen hasieran berraktibatzea. Itxura guztien arabera, suspertze horren zati bat lehen hiruhilekoan zehar gertatu da.

Testuinguru nabarmendu beharra dago...

- 450 "enpresa" berri erregistratu dira hirian. Hau da, urtarilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, 344 zergadun bakar egon dira, aurretik jarduera ekonomikorik erregistratu gabe, EJZn alta eman dutenak (aurreko hiruhilekoko alta-kopuru bera).

Ez dira kontuan hartu aldi berean jarduera bati alta eta baja eman zaizkion kasuak, hau da, 3 hilabete baino gutxiagoz alta emanda egon direnak. EJZren 3. epigrafean bildutako jarduera artistikoak ere ez dira kontuan hartu.

"Zergadun berri" tratamendua eman zaie urtebetetik gorako jarduerarik ezaren ondoren jarduera berri bat erregistratu duten pertsona fisiko edo juridikoei.

- 2025eko lehen hiruhilekoan, 316 "enpresak" eman dute baja hirian. Hau da, urtarilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, 316 zergadun bakarrek utzi diote EJZn alta emandako jardueraren bat izateari.

Nabarmendu behar da ez direla kontuan hartu jarduera bati denboraldi berean alta eta baja eman zaizkion kasuak, hau da, 3 hilabete baino gutxiagoz alta emanda egon direnak. Jarduera artistikoak ere ez dira kontuan hartu.


Ez dira kontuan hartu aldian behin eta denbora-tarte nahiko laburretan altak eta bajak ikusten diren kasuak, egindako jardueren urtarokotasunarekin lotutako aldi baterako kargu-uzteak direla ulertuta.

Litekeena da erregistratutako bajeen zati bat aldi baterako jarduera uztearen ondoriozkoa izatea; hala ere, ezinezkoa da EJZn eskuragarri dagoen informaziotik abiatuta kalkulatzeko horietako zenbat diren logika horri erantzuten diotenak eta hurrengo aldian berraktibatuko direnak.

- Erdigunea da dinamismo handiena duen auzoa, alta eta baja guztien % 22 inguru biltzen baititu. Aipatzekoak dira, halaber, Amara Berri, Gros, Antiguoa eta Egia.
- Zerbitzu operatiboak eta ezagutzen intentsiboak diren enpresei zuzendutako zerbitzuen sektoreak garrantzi handia dute alden eta bajeen guztizkoan⁵.

⁵ Zergadun bera jarduera desberdinetan alta emanda egon daitekeenez, bakoitza jarduera nagusi bakararekin lotu da. Horrela, zergadun bakarren alta eta baja horiek jardueraren arabera banakatu ditzakegu.

Zergadun bakarren EJZko altak eta bajak, jarduera-
adarraren arabera



Irudia 8: Zergadun bakarren balantzea, jarduera ekonomikoaren arabera (JEZ)

	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
AIETE	22	17	5
ALTZA	23	14	9
AMARA BERRI	56	44	12
AÑORGA	17	5	12
ANTIGUO	39	26	13
ATEGORRIETA - ULIA	12	7	5
CENTRO	99	69	30
EGIA	42	20	22
GROS	48	36	12
IBAETA	20	20	0
IGELDO	1	1	0
INTXAURRONDO	25	14	11
LANDARBASO	0	0	0
LOIOLA	9	7	2
MARTUTENE	4	4	0
MIRACRUZ - BIDEBIETA	14	11	3
MIRAMON - ZORROAGA	5	2	3
ZUBIETA	3	0	3
ZEHAZTU GABE	11	19	-8
GUZTIRA	450	316	134

Taula 7: Zergadun bakarren balantzea auzoen arabera (JEZ)

Zergadunen orde, aldi horretan erregistratutako jarduera ekonomikoaren kokalekuetan jartzen badugu fokua, hau da, jarduera horiek aurrera eramateko erabiltzen diren egoitzak ("enpresa" horien establezimenduak direla esan genezake), balantzea positiboa da berriro, +200 establezimendukoa.

	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
AIETE	24	19	5
ALTZA	24	18	6
AMARA BERRI	81	55	26
AÑORGA	20	5	15
ANTIGUO	59	34	25
ATEGORRIETA - ULIA	13	8	5
CENTRO	132	90	42
EGIA	52	28	24
GROS	70	44	26
IBAETA	32	28	4
IGELDO	2	1	1
INTXAURRONDO	28	17	11
LANDARBASO	0	0	0
LOIOLA	13	9	4
MARTUTENE	8	5	3
MIRACRUZ - BIDEBIETA	17	15	2
MIRAMON - ZORROAGA	7	2	5
ZUBIETA	4	0	4
ZEHAZTU GABE	11	19	-8
GUZTIRA	597	397	200

Taula 8: Jarduera ekonomiko bakarren egoitzen balantzea auzoaren arabera (JEZ)

Jarraian, SEIC-enpresei eta hiri-ekonomiari buruzko dinamismo ekonomikoa aztertuko dugu, gure ehun ekonomikoan duten garrantzia dela eta.

3.1. EZAGUTZAN INTENTSIBOAK DIREN ENPRESA ZERBITZUAK (SEIC)


2025eko lehenengo hiruhilekoan zehar hirian ezagutzen izandako zerbitzu intentsiboen inpaktua neurtzen badugu, JEZn bakarrik diren jarduera ekonomikoko egoitzen balantzea ("establezimendu" gisa interpreta litezke) positiboa izan dela ikusiko dugu, +30 "establezimendu".

Batez ere SEIC-Tak nabarmentzen dira, teknologia berrietan oinarritutakoak (I+G aholkularitza, ingeniariatza, informazioaren teknologiak, etab.), SEIC-enpresa "establezimendu" berrien % 56 biltzen baitute, SEIC-enpresa "establezimenduen" bajeen % 58; eta +15 "establezimenduren" saldo positiboa izan dute.

SEIC-Cek, sormenean intentsiboak diren enpresa-zerbitzuek (diseinu grafikoa, publizitatea, etab.), +8 "establezimenduko" balantze positiboa dute, eta SEIC – Pek, zerbitzu profesional tradizionalak (kudeaketa, kontabilitatea, jarduera juridikoak, etab.), aldiz, +7 "establezimenduko" balantze positiboa dute.

Jardueraren egoitzetako alta eta baja horien banaketa geografikoari erreparatzan badiogu, honako hau ikusiko dugu:

- SEIC-Pak erdialdean eta inguruko auzoetan biltzen dira.
- Egia bada ere T1 2025ean zehar SEIC-T "establezimenduen" altak eta bajak Amara Berri kontzentratu direla, zentroa, zaharra eta Ibaeta ere nabarmentzen dira.
- SEIC-Cak zabalago daude banatuta Donostia hiri osoan. 2025eko lehen hiruhilekoan alta eta baja kopuruagatik nabarmentzen dira Egia, Amara Berri, erdialdea eta gros.



Irudia 9: SEIC jarduera egoitza bakarren balantzea, auzoaren arabera (JEZ)

SEIC-C			
AUZOA	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
AIETE	1	3	-2
ALTZA	2	2	0
AMARA BERRI	6	3	3
AÑORGA	0	1	-1
ANTIGUO	1	3	-2
ATEGORRIETA - ULIA	4	0	4
CENTRO	4	4	0
EGIA	4	3	1
GROS	5	1	4
IBAETA	2	2	0
IGELDO	0	0	0
INTXAURRONGO	2	0	2
LANDARBASO	0	0	0
LOIOLA	1	2	-1
MARTUTENE	2	0	2
MIRACRUZ - BIDEBIETA	0	2	-2
MIRAMON - ZORROAGA	0	0	0
ZUBIETA	0	0	0
ZEHAZTU GABE	0	0	0
GUZTIRA	34	26	8

Taula 9: SEIC-C jarduera egoitza bakarren balantzea auzoaren arabera (JEZ)

SEIC-T			
AUZOA	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
AIETE	4	2	2
ALTZA	1	2	-1
AMARA BERRI	18	13	5
AÑORGA	3	2	1
ANTIGUO	5	4	1
ATEGORRIETA - ULIA	2	1	1
CENTRO	11	12	-1
EGIA	8	4	4
GROS	6	6	0
IBAETA	3	4	-1
IGELDO	0	0	0
INTXAURRONGO	3	1	2
LANDARBASO	0	0	0
LOIOLA	1	2	-1
MARTUTENE	0	0	0
MIRACRUZ - BIDEBIETA	1	1	0
MIRAMON - ZORROAGA	2	0	2
ZUBIETA	1	0	1
ZEHAZTU GABE	0	0	0
GUZTIRA	69	54	15


Tabla 10: SEIC-T jarduera egoitza bakarren balantzea auzoaren arabera (JEZ)

SEIC-P			
AUZOA	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
AIETE	2	1	1
ALTZA	1	1	0
AMARA BERRI	3	3	0
AÑORGA	0	0	0
ANTIGUO	5	3	2
ATEGORRIETA - ULIA	0	0	0
CENTRO	4	2	2
EGIA	2	1	1
GROS	1	1	0
IBAETA	2	0	2
IGELDO	0	0	0
INTXAURRONGO	0	0	0
LANDARBASO	0	0	0
LOIOLA	0	0	0
MARTUTENE	0	0	0
MIRACRUZ - BIDEBIETA	0	1	-1
MIRAMON - ZORROAGA	0	0	0
ZUBIETA	0	0	0
ZEHAZTU GABE	0	0	0
GUZTIRA	20	13	7


Tabla 11: SEIC-P jarduera egoitza bakarren balantzea auzoaren arabera (JEZ)

Ezagutzen intentsiboak diren Enpresa Zerbitzuen (SEIC) sektoreko afiliatu-kopuruari erreparatuz gero, ikusten da 2025eko lehen hiruhilekoaren amaieran Donostian 13.495 afiliatu zeudela (13.303, 2024ko laugarren hiruhilekoaren amaieran), gehienak SEIC-T zerbitzuetan. Hazkunde horrek, nahiz eta moderatua izan, sektore horrek hirian duen sendotasuna eta tokiko produkzio-ehunaren barruan duen garrantzia islatzen du.

Aipatzekoa da sektore honetako langile gehienak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuta daudela, eta horrek soldatapekoak direla adierazten du. SEIC-C eta SEIC-P taldeetan, afiliatutako pertsonen % 70 inguru erregimen horretakoak dira, eta SEIC-T taldeetan, berriz, ehunekoa % 87ra igotzen da. Alde horrek erakusten du besteren konturako enpleguaren presentzia handiagoa dela lan autonomoaren aldean, eta hori bereizgarria da balio erantsi handiko sektoreetan. Teknologia, aholkularitza edo zerbitzu profesional aurreratuak bezalako arloetan, enpresek enplegu egonkorra eta kualifikazio handikoa lehenesten duten antolaketa-ereduak aukeratu ohi dituzte.



Irudia 10: SEIC sektoreko afiliazioak generoaren arabera hiruhilekoaren amaieran (Gizarte Segurantzza)



Irudia 11: SEIC sektoreko afiliazioak erregimen motaren arabera hiruhilekoaren amaieran (Gizarte Segurantzza)

3.2. MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

Atal honek hiriko hiri-eremuetan garatzen diren merkataritza-jarduerak, ostatu-zerbitzuak eta jatetxe-zerbitzuak biltzen ditu.

Donostiaren kasuan, jarduera horiek BPGren % 11,6 inguru dira, establezimenduen % 21,5 eta hiriko enpleguaren % 17,5. Horregatik, interesgarria da atal bat eskaintzea.


3.2.1. MERKATARITZA SEKTOREKO DINAMISMOA

2025eko lehenengo hiruhilekoan zehar merkataritza-sektoreak hirian izan duen bilakaera neurtzen badugu, jarduera egoitza bakarren balantzea ("establezimendu" gisa interpreta litezke) positiboa izan dela ikusiko dugu, +11 "establezimendu".

Merkataritza-sektoreko altak eta bajak "txikizkako merkataritzan" kontzentratu dira, eta Elikadura eta moda kategoriak nabarmendu dira.

Jarduera ekonomikoko bizileku bakarrei erreparatzen badiegu jarduera nagusiaren eta kokapen geografikoaren arabera, ikusiko dugu zentroak alta eta baja guztien % 38 inguru biltzen dituela.

Amara Berri auzoa ere nabarmentzen da alta eta baje bolumenagatik.



Irudia 12: Merkataritza sektoreko jarduera egoitza bakarren balantzea, auzoaren arabera (JEZ)


MERKATARITZA			
KATEGORIA	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
Ibilgetuen salmenta	2	2	0
Motordun ibilgetuak eta osagarriak	0	0	0
Tabakoa eta beste kontsumo ondasunak	0	1	-1
Lorategia eta patioa	0	0	0
maskotak	0	0	0
Ehunak	0	0	0
Elikadura	4	3	1
Arropa eta osagarriak	1	0	1
Etxeko ondasunak	6	3	3
Edertasuna eta norberaren zaintza	0	0	0
Kontsumo elektronika	0	0	0
Industria produktuak	3	4	-1
erregaiak	0	0	0
Eguneroko elikadura	18	15	3
Establezimenduko beste txikizkako merkataritza bat	2	7	-5
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	2	3	-1
Etxeko ekipamendua	6	4	2
Aisia eta kultura	2	2	0
Moda, oinetakoak eta osagarriak	16	11	5
Drogeria, lurringintza eta farmazia	9	4	5
Saltokitik kanpoko merkataritza-jarduera	0	1	-1
GUZTIRA	71	60	11

MERKATARITZA			
AUZOAK	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
AIETE	3	0	3
ALTZA	7	3	4
AMARA BERRI	8	10	-2
AÑORGA	3	0	3
ANTIGUO	8	4	4
ATEGORRIETA - ULIA	1	0	1
CENTRO	27	23	4
EGIA	3	0	3
GROS	2	8	-6
IBAETA	1	6	-5
IGELDO	0	0	0
INTXAURRONGO	2	2	0
LANDARBASO	0	0	0
LOIOLA	0	0	0
MARTUTENE	1	0	1
MIRACRUZ - BIDEBIETA	3	3	0
MIRAMON - ZORROAGA	1	0	1
ZUBIETA	1	0	1
ZEHASTU GABE	0	1	-1
GUZTIRA	71	60	11


Taula 12: Merkataritza sektoreko jarduera egoitza bakarren balantzea kategorio eta auzoaren arabera (JEZ)

Merkataritza-sektoreko afiliatu-kopuruari erreparatuz gero, ikusten da 2025eko lehen hiruhilekoa amaitzean Donostian 12.300 afiliatu zeudela (2024aren amaieran 12.864), eta gehienak txikizkako merkataritza. Joera horrek azpisektore horrek tokiko ekonomian duen garrantzia islatzen du, bai enpleguari dagokionez, bai enpresa-dinamismoari dagokionez.

Merkataritza-sektoreak lan autonomoaren proportzio nabarmena du, eta Autonomoen Erregimeneko afiliazio-ehuneko handiena duen hirugarren sektorea da langile guztiekiko (langileen % 24 inguru), lehen sektorearen eta eraikuntzaren atzetik soilik. Ezaugarri horrek tokiko saltokien presentzia handia islatzen du, horietako asko familiaratean edo banaka kudeatutakoak. Hala ere, jendea arreta emateko ordutegi zabalak betetzeko beharrak eta kate eta frankizien presentzia gero eta handiagoak ere bultzatzen dute besteren konturako langileak dituzten enpresa-egituretan enplegua sortzea.



Irudia 13: Merkataritza sektoreko afiliazioak generoaren arabera hiruhilekoaren amaieran (Gizarte Segurantzza)




Irudia 14: Merkataritza sektoreko afiliazioak erregimen motaren arabera hiruhilekoaren amaieran (Gizarte Segurantzza)

3.2.2. OSTALARITZA SEKTOREKO DINAMISMOA (ostatu eta jatetxe/janari zerbitzuak)

2025eko lehenengo hiruhilekoan zehar ostalaritzak hirian izan duen eragina neurtzen badugu, jarduera egoitza bakarren balantzea ("establezimendu" gisa interpreta litezke) positiboa izan dela ikusiko dugu: +34 "establezimendu". Era berean, "establezimenduko" altak eta bajak jatetxeetako eta janarietako zerbitzuetan kontzentratzen dira.

Jarduera-etxeetako alten eta baje banaketa geografikoari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu jarduera horiek hiriaren erdigunean kontzentratzeko joera dagoela:



Irudia 15: Ostalaritza sektoreko jarduera egoitza bakarren balantzea, auzoaren arabera (JEZ)

JATETXEAK ETA JANARI ZERBITZUAK			
AUZOA	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
AIETE	1	0	1
ALTZA	1	1	0
AMARA BERRI	5	2	3
AÑORGA	1	0	1
ANTIGUO	6	1	5
ATEGORRIETA - ULIA	0	0	0
CENTRO	21	8	13
EGIA	4	1	3
GROS	7	1	6
IBAETA	2	3	-1
IGELDO	0	0	0
INTXAURRONDO	4	3	1
LANDARBASO	0	0	0
LOIOLA	1	1	0
MARTUTENE	0	0	0
MIRACRUZ - BIDEBIETA	2	1	1
MIRAMON - ZORROAGA	0	0	0
ZUBIETA	1	0	1
ZEHAZTU GABE	0	0	0
GUZTIRA	56	22	34


Taula 14: Jatetxe eta janari zerbitzuen sektoreko jarduera egoitza bakarren balantzea eta auzoaren arabera (JEZ)

OSTATU ZERBITZUAK			
AUZOA	ALTAK	BAJAK	BALANTZEA
ALTZA	1	0	1
CENTRO	4	1	3
EGIA	2	3	-1
GROS	1	0	1
IBAETA	2	0	2
GUZTIRA	10	4	6


Taula 13: Jatetxe eta janari zerbitzuen sektoreko jarduera egoitza bakarren balantzea eta auzoaren arabera (JEZ)

Ostalaritzaren sektorean afiliatutako pertsonen kopuruari erreparatzen badiogu, 2025eko lehen hiruhilekoaren amaieran Donostian guztira 9.971 afiliazio zeuden, eta 2024aren amaieran, berriz, 10.041. Afiliazio horietako gehienak jatetxe-zerbitzuetan eta antzeko jardueretan biltzen dira. Beherakada txiki horren arrazoia sektorearen urtarokotasun nabarmena izan daiteke, enpleguan doikuntzak erregistratu ohi baititu Gabonetako denboraldiari eta neguko turismoari lotutako jarduera-gailurren ondoren.

Gainera, garrantzitsua da aipatzea sektore horretan besteren konturako enplegua dela nagusi. Jatetxe-arloan lan egiten duten pertsonen % 85 eta ostatu-zerbitzuetan lan egiten dutenen % 95, gutxi gorabehera, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuta daude, eta horrek soldatapeko lan-harremanetan oinarritutako lan-egitura islatzen du.



Irudia 16: Ostalaritza sektoreko afiliazioak generoaren arabera hiruhilekoaren amaieran (Gizarte Segurantzza)



Irudia 17: Ostalaritza sektoreko afiliazioak erregimen motaren arabera hiruhilekoaren amaieran (Gizarte Segurantzza)